



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Prentsa-oharra

## **Euskerearen digitalizazioaren aldeko ahaleginak eta aurrerapenak azpimarratu ditu Kultura Sailak Bizkaiko Batzar Nagusietan**

Bilbon, 2012ko azaroaren 29an

Josune Ariztondo Kulturako Foru Diputatu andreak aldeztu egin dau gaur Batzar Nagusietan euskerearen presentzia mundu digitalean areagotzeko bere Sailak eta Azkue Fundazioak egindako lana, nahiz eta autortu arlo horretan euskereak hizkuntza gitxitua dan neurrian daukazan zailtasunak, Euskal Herriko Unibertsitateak oraintsu egindako azterlan baten esaten danez.

META.NET deritxan azterlanaren ondorioek ekarri dabe Batzar Nagusietako Bildu Taldeak egin deutzan erantzun-eskea, Batzar Nagusietako Kulturako Batzordean gauzatu dana, euskerearen “etorkizun digitala hain larria izan beharrean osasuntsua izateko Sailaren ekimenei buruzkoa”, Irune Soto taldeburuak azaldu dauenez.

Bilduko ordezkariak uste dau “gure hizkuntzak maila digitalean desagertzeko arrisku handia daukala”, azterlan horretan esaten danez. Kontuan izanda Azkue Fundazioak jasoten dauen diru-laguntza pisutsua, eta honen helburuetako bat zuzenean gai honi loturik dagoala ikusita, galdetu dau be “zer nolako emaitza neurgarriak eskatuko zaizkion fundazioari”.

Erantzunean, Ariztondo andreak autortu egin dau mundu digitalean euskereak daukan presentzia “osagabea” dala, META NET txostenean bertan agertzen dan hitza erabilita. Beste hizkuntzei jagokenez, bakarrik dauka presentzia “ona” ingelesak (gaztelereak, esaterako, “ertaina”). Bere eretxian, “azterlana zuhurra da, baina baikorra be bari euskerearen etorkizunari jagokenez, esaten dauen arren teknologiak sortzen eta baliabideak jartzen jarraitu beharra dagoala euskerearen osasun digitala hobatzeko”. Diputatu andreak autortu dau be jarraipena falta dala ikerkuntzan, eta “horretan badauka zerikusirik gaur egun bizi dogun krisialdiak eta aurrekontuen murrizketeak”. Arlo digitalean izandako bilakaera positiboaren adibide moduan, Kulturako Diputatuak esan dau Wikipedian 100.000 artikulua baino gehiago dagozala euskeraz.

Azkue Fundazioak euskerearen digitalizaziorako lana eta bultzatutako proiektuak be aitatu ditu Ariztondo andreak, eta horreen artean azpimarratu egin ditu Klikasi Multimedia Gunea, Ugarteburu eta Irudimedia sariak, Euskalplay eta sareko jokoak, hizkuntza gitxituei buruzko azterlanak, euskerazko musikako Badok webgunea, Hamaika Telebistagaz lankidetzan egiten dan HamaikaBIT saioa, komikiei buruzko tailer digitalak, Barritsu abatar digitala, eta Euskeraren Interpretazino Zentroa, hizkuntza gitxituen mundu guztiko ikertzaileentzako eta zaleentzako leku erakargarri bihurtu dana.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## **HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

Era berean, Batzordean euskerea protagonista izan da Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat dala-ta, babeska eskaintzeko “gure lurraldean ekoiztutako produktuak euskaraz etiketatzen dituzten ekoizleei” eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzeko “ekoizleek euskaraz etiketatzeko duten eskubidea eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko, bere eskumenen pean dauden jarduera guztiak bultzatuz”

Bilduk Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau esanez “ulergaitza” eta “zuzenean, herritarren hizkuntz eskubideen urraketa” dala Euskal Herria Esnea kooperatibak produktu bat euskeraz etiketatzeko Eusko Jaurlaritzak zehapen-espedita edegi izana.

Talde Popularraren ordezkariak zein Talde sozialistarenak esan dabe Euskal Herria Esnea auziaren inguruan izandako ika-mikak “administratuzino eta lege mailakoak baino ez dirala izan”, eta ez daukala zerikusirik euskereari egindako inolako erasogaz. Euzko Abertzaleak Taldeko Lorea Bilbao batzarkideak esan dau Euskal Herria Esnearen kontua atxaki moduan erabili arren, administratuzino publikoak babestu egin behar dabezala hizkuntza eskubideak, batez be egoera gitxituan eta ahulen dagozanenak diranean.

Bilduren proposamena, “lehen sektoreko ekoizleek euskaraz etiketatzeko duten eskubidea eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren legeri aldaketak berehala bultzatuz” eskatzen deusana Eusko Jaurlaritzari, onartu egin da Bilduko eta Euzko Abertzaleak Taldeko aldeko botoakaz eta Talde Popularraren eta Socialistas Vascos Taldearen abstentzinoakaz.

## **ONDARE HISTORIKOA BABESTEKO PROPOSAMENAK**

Kultura eta Euskerako Batzordearen gaurko bileran ondare historikoa babestearen inguruan Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatu dira. Horren bidez eskatu gura jake Eusko Jaurlaritzari eta Estatukoari Bilboko Burdin Heska eta Portugaleteko Burdin Moila edo Txurrukaren Moila Kultur Ondasun sailkatu eta izendatzeko, bata zein bestea babestu eta behar dan moduan zaintzeko. Ekimen biok ahobatez onartu dira, baina eztabaida egon da aurretik Kultur Ondasunak sailkatzerakoan eta izendatzerakoan administratuzino bakoaren aginpideari buruz.

Arturo Aldecoa Talde Popularreko batzarkideak gogoratu dau Bilboko “Burdin Heska” deritxanaren “zatiren bat udalerrri barruan daben Bizkaiko zenbait udalek asmotan darabilela Gerra Zibilean eregitako hesiaren balio turistikoa suspertzea” eta eskatzen dau aginpidea daukan administratuzinoak —bere eretxian Eusko Jaurlaritzak— abiazo dagiala hori inbentariatu eta babestea bideratuko dauen espedita.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Proposamen horren alde bozkatu daben arren, Bildu Taldekoek zein Euzko Abertzaleak Taldekoak esan dabe bildur dirala “Burdin Hesia” parke tematiko edo turismoa erakarteko aisialdi-leku bihurtuko ez ete dan. “Ezin dogu gai horretan arinkeriaz jokatu, gure Herriaren pasarte mingarria ekarte deuskulako gogora, oraindik zauriak itxi barik dagozalako eta gerra horretan hildakoen hilobiak dagozalako bide baztarretan”, Ana Esther Furundarena Euzko Abertzaleak Taldeko batzarkidearen esanetan. Ildo berean, Bildu Taldeko Asier Sanz batzarkideak eskatu dau gerrako azpiegitura horregaz egin daiten edozein proiektuk “gure oraintsuko historiaren gertaera tamalgarri haretan Bizkaia faxistengandik defendatzearren hil ziran guztien oroimena errespetatu dagiala”.

### **“PLEISTOCENE PEOPLE AND PLACES” SARE EUOPARRA**

Batzordean eztabaidatu dan azken aztergaia izan da Bizkaiko Arkeologi Museoa, Santimamiñeko aztarnategia eta Lurralde Historikoan dagozan gainontzeko aztarnategi pleistozenikoak "Pleistocene People and Places" izeneko lankidetzarako sare europarrean sartzeari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Sare horrek Europa guztiko aztarnategi eta museo pleistozenoar garrantzitsuenak hartzen ditu gaur egun. Onartu egin da be Euzko Abertzaleak Taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskea, hain zuzen be eskatzeko sare horretan sartu aurretik Aldundiak egiaztatu eta neurtu dagiala sare horretan egotearen egokitasuna, “hasi barria dalako eta, are gehiago, izena bera be aldatuko ete jakon aztertzen dagozalako, Izotz Aroko Eremuen Sarea izena emoteko” Jon Sanchez Euzko Abertzaleak Taldeko batzarkideak esan dauenez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Nota de prensa

## **El Departamento de Cultura destaca en Juntas Generales de Bizkaia los esfuerzos y avances en favor de la digitalización del euskera**

Bilbao, 29 de noviembre de 2012.

La Diputada Foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha defendido hoy en Juntas Generales de Bizkaia la labor de su Departamento y de la Fundación Azkue en favor de una mayor presencia del euskera en el mundo digital, aunque ha reconocido las dificultades que como lengua minorizada se encuentra en este ámbito, tal y como confirma un reciente estudio elaborado por la Universidad del País Vasco.

Las conclusiones del estudio [META.NET](#) han sido las que han motivado una pregunta del grupo Bildu en la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales relativa a las actuaciones que el Departamento de Cultura lleva a cabo para que el futuro digital del euskera “deje de ser tan grave y goce de mejor salud”, según ha explicado su portavoz, Irune Soto.

La representante de Bildu considera que la lengua vasca está en “grave riesgo de desaparición a nivel digital”, tal y como recoge el citado estudio. También ha preguntado sobre los resultados que deben exigirse a la Fundación Azkue, “teniendo en cuenta la importante subvención que recibe, y a la vista de que uno de sus objetivos está relacionado con este ámbito”.

En su respuesta, Ariztondo ha reconocido que la presencia del euskera en el ámbito digital es “incompleta”, utilizando terminología del propio informe [META.NET](#), que solo considera en “buena” situación al inglés (el español, por ejemplo, está en situación “media”). En su opinión, “este estudio es prudente pero optimista con el euskera de cara al futuro, aunque pone de relieve la necesidad de seguir generando tecnologías, medios e instrumentos para mejorar su salud digital”. La diputada también ha reconocido cierta falta de continuidad investigadora, “a lo cual no es ajena la actual coyuntura de crisis y recortes presupuestarios”. Como ejemplo de esta evolución positiva en el ámbito digital, la responsable foral de Cultura ha destacado los más de 100.000 artículos en euskera que pueden consultarse en Wikipedia.

Ariztondo también ha puesto en valor el trabajo y los proyectos impulsados por la fundación Azkue a favor de la digitalización del euskera, entre los que ha destacado el portal Klikasi Multimedia Gunea, los premios Ugarteburu e Irudimena, los Juegos Euskalplay y en Red, los estudios sobre lenguas minorizadas, el portal Badok de música en euskera, el programa HamaikaBIT en colaboración con Hamaika Telebista, los talleres digitales de cómic, el avatar digital Barritsu, y el Centro de Interpretación del Euskera, que, además, se está convirtiendo en un foco de atracción



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

para amantes y estudiosos de lenguas minorizadas de todo el mundo.

## **DERECHOS LINGÜÍSTICOS**

Asimismo, el euskera ha sido protagonista hoy en la Comisión a través de una Proposición No de Norma presentada también por el grupo Bildu, buscando que las Juntas Generales muestren su apoyo a los productores que etiquetan en euskera, así como a que la Diputación Foral de Bizkaia lleve a cabo todas las acciones que, dentro de sus competencias, le correspondan para garantizar, de una parte, el derecho a etiquetar en euskera y, de otra, los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

La proposición está relacionada con la apertura de un expediente sancionador del Gobierno Vasco a la cooperativa ganadera Euskal Herria Esnea por etiquetar uno de sus productos exclusivamente en euskera, lo que Bildu considera “incompresible” y un “ataque directo a los derechos lingüísticos de la ciudadanía” .

Tanto el representante del grupo Popular como el del grupo socialista creen que la polémica surgida con el caso de Euskal Herria Esnea “es de índole únicamente administrativa y legal, y no está relacionada con ningún ataque al euskera”. La portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, Lorea Bilbao, también considera que “aunque el caso de Euskal Herria Esnea sea una excusa, la administración pública debe defender los derechos lingüísticos, sobre todo de aquellos que están en una posición minorizada y de debilidad”.

La propuesta del grupo Bildu instando al Gobierno Vasco a que impulse de manera inmediata las modificaciones legales necesarias para garantizar estos dos derechos ha sido aprobada finalmente con el voto a favor de los representantes abertzales y de los del grupo Nacionalistas Vascos, y con la abstención del grupo Popular y del grupo Socialistas Vascos.

## **PROPOSICIONES PARA LA PROTECCIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO**

La Comisión de Cultura y Euskera ha incluido en su reunión de hoy en Juntas Generales Proposiciones No de Norma del grupo Popular con el fin de instar, tanto al Gobierno Vasco como al Central, a la Catalogación y Declaración del “Cinturón de Hierro” de Bilbao y del “Muelle de Hierro”, o “Muelle de Churruca”, de Portugalete, como Bienes Culturales, a fin de garantizar su conservación y adecuado mantenimiento. Ambas iniciativas han sido aprobadas por unanimidad en la Comisión, aunque ha surgido un debate previo sobre el protagonismo y las competencias de cada institución en estos casos de Catalogación y Declaración de Bienes Culturales.

El portavoz del grupo Popular, Arturo Aldekoa, ha recordado, en el caso del “Cinturón de Hierro”, que “algunos ayuntamientos se han planteado fomentar el valor turístico de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

los restos de lo que fue el sistema de fortificación construido durante la Guerra Civil Española”, para pedir que la administración competente, que en su opinión es el Gobierno Vasco, inicie el expediente correspondiente para su inventario y protección como elemento histórico.

Aunque han votado a favor de la propuesta, tanto Bildu como el grupo Nacionalistas Vascos han subrayado su temor a que el “Cinturón de Hierro” se convierta “en un parque temático o foco de atracción turística de carácter lúdico. “No hay que frivolar, porque estamos hablando de un escenario de dolor y desgracia para nuestro pueblo, en el que todavía hay heridas abiertas y fosas con restos de combatientes y civiles muertos en aquella guerra”, ha afirmado la portavoz nacionalista, Ana Esther Furundarena. En la misma línea, el portavoz de Bildu, Asier Sanz, ha reclamado que cualquier proyecto para esta infraestructura bélica “respete la memoria de todos aquellos que murieron por defender Bizkaia del fascismo en aquel episodio trágico de nuestra historia reciente”.

### **RED EUROPEA “PLEISTOCENE PEOPLE AND PLACES”**

Por último, la Comisión ha debatido y aprobado una Proposición No de Norma relativa a la incorporación del Museo Arqueológico de Bizkaia, el yacimiento de Santimamiñe y los demás yacimientos pleistocénicos existentes en el Territorio Histórico, a la red europea de cooperación “Pleistocene People and Places”, una red que se está creando en la actualidad y que agrupa los yacimientos y centros museísticos de esta época más destacados de todo el Continente. La iniciativa ha incorporado una enmienda del grupo Nacionalistas Vascos, que proponía que antes de que se produzca esta incorporación, la Diputación estudie y valore la idoneidad de esa red debido a que, según el portavoz Jon Sánchez, “aún está en pañales e, incluso, se baraja un cambio de nombre por el de Red de Espacios de la Edad de Hielo”.